**2021EKO URTARRILAREN 28AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 28 DE ENERO DE 2020**

| | |
|---|---|
| **LEKUA**: Beasaingo Udaletxea. | **LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain |
| **ARETOA**: Batzar Aretoa. | **LOCAL**: Salón de Plenos |
| **EGUNA**: Hogeita zortzi | **DIA**: Veintiocho |
| **HILABETEA**: Urtarrila. | **MES:** Enero. |
| **URTEA**: Bi mila eta hogeita bat | **AÑO**: Dos mil veintiuno |
| **HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko zazpiak | **HORA DE COMIENZO**: Diecinueve horas. |
| **BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa. | **CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria. |
| **DEIALDIA**: Lehena. | **CONVOCATORIA**: Primera. |
| **OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Hamazazpi (17) | **NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17) |
| **UDALBURUA/PRESIDENTE**:<br>LEIRE ARTOLA UGALDE | |
| **BILDUAK/REUNIDOS**:<br><br>EAJ-PNV<br><br>- LEIRE ARTOLA UGALDE<br>- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ<br>- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO<br>- MARIA ELENA RUIZ ZABALA<br>- EDORTA DIAZ DEL RIO<br>- JON OLANO ARRESE<br>- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA<br>- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA<br>- AINARA AYESTARAN ALDASORO<br>- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL<br><br>Beasaingo EH Bildu<br><br>- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL<br>- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR<br>- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ<br>- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE<br>- AITOR URDANGARIN IRASTORZA | |

| | |
|---|---|
| Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak<br><br>- EVA ALVAREZ ATANES<br>- ANGEL REDONDO FERNANDEZ | |
| **IDAZKARIA:** Itziar Aroztegui Apaolaza Idazkariak Plenora etortzerik ezin izan duenez, LURDES ALEGRIA LASA kontuhartzaileak egin ditu Idazkari lanak. | **SECRETARIA**: Ante la imposibilidad de asistir a Pleno de la Secretaria Itziar Aroztegui Apaolaza, las funciones de la Secretaria las ha realizado la Interventora LURDES ALEGRÍA LASA. |
| **1.- AURREKO AKTA**. 2020-12-22koa<br><br>Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako. | **1.- ACTA ANTERIOR**. 22-12-2020 .<br><br>Tras informar el acta se han aprobado por unanimidad. |
| **2.- ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA**: Mikel Plazaola Oyarzabal. 2020IDBO0036 | **2.- TOMA DE POSESIÓN DE CONCEJAL**: Mikel Plazaola Oyarzabal. |
| Alkate andreak (EAJ-PNV): “Zinegotzi kargua hartzeko beharrezkoa da aurkeztea bateraezintasun eta ondasunen aitorpena. Mikel Plazaola Oyarzabal.jaunak, aurkeztu ditu eta horren ondorioz, zinegotzi karguaren jabetza har dezake. Horretarako, legalki ezarrita dagoen zine-egite formula baieztatu behar du.”<br><br>Alkate andreak, zin-egite formula irakurri dio, zinegotzi kargua hartu behar duenari, hau da: “Zin dagizu edota agintzen duzu, zure kontzientzia eta ohoreagatik, zintzo beteko dituzula zinegotzi karguak berekin dituen betebeharrak, Erregearekin leial izanez eta Konstituzioa Estatuaren funtsezko arau gisa zainduz eta zainaraziz?"<br><br>Mikel Plazaola Oyarzabal. jaunak: “Bai. Legeak hala behartuta, zin egiten dut.”<br><br>Alkate andreak (EAJ-PNV): “Beraz, Mikel Plazaola Oyarzabal jaunak, zinegotzi karguaren jabetza hartu du eta Beasaingo EAJ-PNV udal taldearen kide izatera pasatuko da.”<br><br>Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu) pare bat galdera dituela esan du, bata zergatik dauden bi akta eta bestea zinegotzi kargua hartzearekiko.<br><br>Alkateak esan du hurrengo plenoan argituko direla gaurkoan Idazkaria ez dagoelako. | La Alcaldesa (EAJ-PNV): "Para tomar posesión del cargo de concejal es necesario presentar declaración de incompatibilidades y de bienes. Mikel Plazaola Oyarzabal los ha presentado y en consecuencia puede tomar posesión del cargo de concejal. Para ello debe confirmar la fórmula de juramento legalmente establecida. "<br><br>La señora alcaldesa, le ha leído la fórmula del juramento, a quien ha de tomar posesión del cargo de concejal, a saber: "¿Juras o prometes, por tu conciencia y honor, cumplir fielmente con las obligaciones que el cargo de concejal tiene consigo, siendo fiel al Rey y guardando y haciendo guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?"<br><br>Mikel Plazaola Oyarzabal : "Sí. Lo juro por imperativo legal. "<br><br>La Alcaldesa (EAJ-PNV): "Por tanto, Mikel Plazaola Oyarzabal ha tomado posesión del cargo de concejal y pasará a formar parte del grupo municipal EAJ-PNV de Beasain."<br><br>Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu) dice que tiene un par de preguntas, una sobre por qué hay dos actas y la otra respecto a la toma de posesión como concejal.<br>La alcaldesa dice que se aclararán en el próximo pleno porque hoy no está la Secretaria. |

| | |
|---|---|
| **<u>3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK</u>**:<br><br><u>a.- XXIV. IGARTZA LITERATURA SORKUNTZAKO BEKAREN OINARRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA</u>. 2021ESEP0001<br><br>Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena: | **<u>3.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE CIUDADANÍA</u>**:<br><br>a.- <u>XXIV. BECA DE CREACIÓN LITERARIA IGARTZA. APROBACIÓN DE BASES Y CONVOCATORIA.</u><br><br>Se ha informado la propuesta de la Comisión de Ciudadanía: |
| "*AURREKARIAK:*<br><br>*1.-1994 urtean sortu zuen Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF enpresaren babesarekin eta ELKAR argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, IGARTZA LITERATURA-SORKUNTZAKO BEKA idazle berrientzat. Horrela jasotzen da Beasaingo Udalak eta ELKAR argitaletxeak 1994ko maiatzaren 23an sinatutako hitzarmenean. Baina, CAF enpresarekin ez zen ezer sinatu.*<br><br>*2.- LITERATUR BEKA honek 6.000,00 euroko diru-saria izan du hasieratik CAF enpresak jarriak. 2013ko otsailaren 20an, ordea, CAF enpresak idatzi bat aurkeztu zion Beasaingo alkateari urte horretatik aurrera bere diru ekarpena 6.000,00 eurokoa izan beharrean 4.000,00 eurokoa izango zela jakinarazteko.*<br><br>*3.- Ondorioz, data horretatik aurrera saria osatzeko falta ziren 2.000,00 euroak Elkar argitaletxeak eta Beasaingo Udalak erdi bana ordaintzea erabaki zen.*<br><br>*4. Bestalde, epaimahaiak hala erabaki duenean, 3000,00 €ko akzesit saria ere eman da. Hori dela eta, Elkar argitaletxeak eta Beasaingo Udalak erdi bana ematea adostu zuten.*<br><br>*5. 2019ko irailaren 6an hitzarmena eguneratu da eta hitzarmen horren helburua IGARTZA LITERATURA- SORKUNTZAKO BEKAri dagokionez, ELKAR argitaletxearen, CAF(Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) enpresaren eta udalaren arteko harremana eta elkarlana zehaztu eta finkatzea da. Udala sustatzailea izanik eta ELKAR eta CAF enpresa laguntzailea eta babeslea hurrenez hurren.*<br>*Ondorengoa kontuan hartuta:*<br><br>*LEGERIA APLIKARRIA* | *"ANTECEDENTES:*<br><br>*1.En 1994 el Ayuntamiento de Beasain, con el apoyo de CAF y la ayuda de la editorial Elkar, creo la BECA DE CREACION LITERARIA IGARTZA para escritoras y escritores noveles con la intención de divulgar la cultura vasca y apoyar el trabajo de los escritoras y escritores jóvenes. Así se recogió en el convenio suscrito por Beasaingo Udala y Elkar el 23 de mayo de 1994. No obstante, CAF no llegó a firmarlo.*<br><br>*2. La cuantía de la BECA LITERARIA ha sido siempre de 6.000,00 euros los cuales eran abonados por CAF. Sin embargo, el 20 de febrero de 2013 CAF notificó al Ayuntamiento mediante un escrito que la aportación de la empresa sería de 4.000,00 euros en lugar de 6.000,00.*<br><br>*3.- Por ello, desde esa fecha en adelante los 2.000,00 euros restantes para completar la cuantía de la beca se abonan entre la editorial Elkar y el Ayuntamiento de Beasain.*<br><br>*4. Por otro lado, cuando el tribunal así lo ha decidido se ha concedido un accésit de 3.000,00 euros abonados por la editorial Elkar y el Ayuntamiento de Beasain a partes iguales.*<br><br>*5. El 6 de septiembre de 2019 se ha actualizado el convenio con el objeto de concretar y afianzar la relación y colaboración que hay entre la empresa CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles), la editorial ELKAR y el Ayuntamiento respecto a la BECA DE CREACION LITERARIA IGARTZA. Siendo el Ayuntamiento el promotor, con la ayuda de ELKAR y el apoyo de CAF.*<br><br>*LEGISLACIÓN APLICABLE:* |

| | |
|---|---|
| *-Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra subentzioak emateari buruzkoa.*<br><br>*PROPOSAMENA:*<br><br>*Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:*<br><br>*Lehenik: XXIV. Igartza literatura-sorkuntzako bekaren inguruko oinarriak onartzea.*<br><br>*Bigarrenik: Deialdi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta."* | *-Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.*<br><br>*PROPUESTA:*<br><br>*La Comisión de Ciudadanía somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:*<br><br>*Primero: Aprobar las bases para la XXIV. beca de creación literaria Igartza.*<br><br>*Segundo: Efectuar convocatoria pública mediante publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.* |
| Horrezaz gain, Alkateak (EAJ-PNV) ondorengoa esan du: "Bekak 6.000,00 €ko saria du eta epaimahaiak horrela kontsideratu duenean, 3.000,00 €ko ACCESIT saria ere nozbait eman da eta aurrerantzean ere eman daiteke horrela suertatuko balitz. Igartza literatur sorkuntza bekak Beasain gure mugetatik haratago, mapan kokatzea ahalbidetzen du. Idazle gazteentzat motibagarria da eta era berean arnasa da. Bereziki nabarmendu nahiko nuke sormena eta euskera ekintza berdinean hartzen dituela. Ohikotasun batean urtero oinarriak onartzen baditugu ere, duen balioa aintzakotzat hartu behar dugu.<br><br>Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.<br><br>Bozketa eginda, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira: | Además, la Alcaldesa (EAJ-PNV) ha señalado que "la beca tiene un premio de 6.000,00 € y cuando el jurado así lo ha considerado, se ha concedido un accésit de 3.000,00 € y si se da el caso se concederá también en el futuro. La beca de creación literaria Igartza permite situar Beasain en el mapa más allá de nuestras fronteras. Para los jóvenes escritores es motivador y a la vez es un respiro. Me gustaría destacar especialmente que en este premio van de la mano la creatividad y el euskera. Aunque aprobemos cada año las bases de modo rutinario, debemos tener en cuenta su valor.<br><br>Tras el turno de intervenciones, los presentes manifiestan su conformidad con la propuesta.<br><br>Tras realizar la votación se ha aprobado la propuesta por unanimidad. |
| *"XXIV. IGARTZA LITERATURA-SORKUNTZAKO BEKA<br>IDAZLE BERRIENTZAT*<br><br>***Lehena. Bekaren xedea***<br><br>*Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) enpresaren babesarekin eta ELKAR argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, XXIV. IGARTZA LITERATURA-SORKUNTZAKO BEKA emateko oinarriak arautzen dira.* | *"XXIV. BECA DE CREACIÓN LITERARIA IGARTZAPARA ESCRITORES Y ESCRITORAS NOVELES*<br><br>***Primera. Objeto de la beca***<br><br>*El Ayuntamiento de Beasain, con el apoyo de la empresa CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) y la ayuda de la editorial Elkar argitaletxea, regula las bases para la adjudicación de la XXIV BECA DE CREACIÓN LITERARIA IGARTZA, con la intención de divulgar la cultura vasca y apoyar el trabajo de los escritores y escritoras jóvenes.* |

| | |
|---|---|
| ***Bigarrena. Bekaren diru kopurua*** | ***Segunda. Cuantía de la beca*** |
| *Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak 2019ko irailaren 6an sinatutako hitzarmenaren arabera, bekaren zenbatekoa 6.000,00 eurokoa da, eta hiru erakunde horiek egindako ekarpenetatik ateratzen da zenbateko hori, hau da:* | *De conformidad con el convenio suscrito el 6 de septiembre de 2019 entre el Ayuntamiento de Beasain, la empresa CAF y Elkar argitaletxea, la cuantía de la beca es de 6.000,00 euros y esa cantidad resulta de las aportaciones realizadas por esas tres entidades, a saber:* |
| *- Beasaingo Udalak 1.000, 00 €*<br>*- CAF enpresak 4.000,00 €*<br>*- Elkar argitaletxeak 1.000,00 €* | *Ayuntamiento de Beasain 1.000, 00€*<br>*CAF 4.000,00 €*<br>*Elkar argitaletxea 1.000,00 €* |
| ***Hirugarrena. Ordainketa*** | ***Tercera. Pago*** |
| *Ordainketa modu honetan egingo da CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak diru ekarpena egin ondoren:* | *El pago se realizará de la siguiente forma tras la aportación de la empresa CAF y la editorial Elkar:* |
| *.- 3.000,00€, irabazle izendatu bezain laster.*<br>*- 3.000,00€, idazlana amaitu eta entregatutakoan eta epaimahaikoek onespena emandakoan, aldez aurretik zerga eta gizarte segurantza betebeharretan eguneratuta egotearen agiriak aurkeztuta.* | *.- 3.000,00 €, en el momento en el que sea designada la persona ganadora.*<br>*.- 3.000,00 €, cuando entregue el trabajo terminado y reciba la aprobación del tribunal, habiendo presentado previamente los justificantes de estar al corriente de las obligaciones tributarias y de la seguridad social.* |
| ***Laugarrena. Oinarriak argitaratzea*** | ***Cuarta. Publicación de las bases*** |
| *Deialdi hau iragarriko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Beasaingo Udalaren webgunean eta eskualdeko zein lurraldeko komunikabideetan.* | *La convocatoria se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en la página web del Ayuntamiento de Beasain y en los medios de comunicación de la comarca y del territorio.* |
| ***Bosgarrena. Aurkezteko epea eta lekua.*** | ***Quinta. Plazo y lugar de presentación.*** |
| *2021eko ekainaren 30a izango da proiektuak aurkezteko azken eguna.* | *El plazo para la presentación de proyectos finaliza el 30 de junio de 2021.* |
| *Modu ofizialean entregatu beharko dira, hau da:*<br>*.- Udaletxeko sarreran erregistro ofizialean aurkeztuta, horretarako eskaria bete( I. Eranskina).*<br>*.- On-line bidez, hau da, udaletxeko erregistro elektronikoa erabiliz: www.beasain.eus* | *La entrega deberá hacerse de forma oficial:*<br>*.- Mediante su presentación en el registro oficial en la entrada del Ayuntamiento, rellenando la solicitud correspondiente (Anexo I).*<br>*.- On-line, mediante el registro electrónico del Ayuntamiento: www.beasain.eus* |
| ***Seigarrena. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.*** | ***Sexta. Documentación que hay que presentar junto con la solicitud.*** |
| *Beka eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu behar dira:* | *Además de la solicitud de beca, se deberán presentar los siguientes documentos:* |

| | |
|---|---|
| *a) Landu nahi duen kontakizunaren azalpena, 2-4 orri bitarteko luzerakoa, egoki iritzitako ezaugarriak zehaztuz, hala nola, argumentua, egitura, liburuaren edukia (75 bat orrialde gutxienez), estiloa, etab.* | *a) Explicación de la narración que quiere elaborar, con una extensión de entre 2 y 4 páginas, concretando las características que se consideren oportunas, como argumento, estructura, extensión (mínimo 75 páginas), estilo, etc.* |
| *b) Idazlanaren lagina edo erakusgarria, 15-20 orrialde bitartekoa, ez nahitaez kontakizunaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena.* | *b) Una muestra del trabajo, de entre 15 y 20 páginas, sin que tenga que ser necesariamente el principio del mismo, pero sí debe constituir una unidad dentro del trabajo.* |
| *c) Egilearen izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta nortasun agiriaren kopia.* | *c) Nombres y apellidos del autor, dirección, email, teléfono y una copia del DNI escaneada.* |
| ***Zazpigarrena. Deialdian parte hartzeko baldintzak.*** | ***Séptima Requisitos para participar en la convocatoria.*** |
| *a) 35 urte bete gabe izatea.*<br>*b) Aurretik lan argitaraturik izatekotan, helduentzako bi liburu baino gehiago ez izatea.*<br>*c) Aurreko edizioetako Igartza Beka sariaren titularra ez izatea.*<br>*d) Narratibako lanak izatea: eleberria edo ipuin-bildumak.*<br>*e) Lanak jatorrizkoak eta euskaraz sortuak izango dira.*<br>*f) Ez da onartuko lehiaketaren batean saritutako eta argitaratutako idazlanik ez osotasunean ez zati batean, eta ezta moldatutako idazlanik ere.* | *a) Tener menos de 35 años.*<br>*b) En caso de haber publicado algún trabajo con anterioridad, que no se trate de más de dos libros para adultos.*<br>*c) No haber sido titular del premio Beca Igartza en anteriores ediciones.*<br>*d) Que se trate de trabajos de narrativa: novelas o colecciones de cuentos.*<br>*e) Los trabajos deben ser originales y creados en euskera.*<br>*f) No se aceptarán trabajos publicados o premiados, ni total ni parcialmente, y que estén adaptados de otros trabajos.* |
| ***Zortzigarrena. Epaimahaiaren osaketa eta eginbeharrak.*** | ***Octava. Composición y obligaciones del jurado*** |
| *Osaketa: Epaimahaia ondorengoek osatuko dute: Oihane Amantegi, Irati Jimenez eta Garazi Kamio.*<br>*Egin beharreko lanak: jasotako proiektu guztiak aztertu eta haien artean irabazlea zein den izendatu 2021eko irailaren 15a baino lehen.*<br>*Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritziz gero, beka eman gabe utz dezakete epaimahaikoek.* | *Composición: El tribunal estará compuesto por: Oihane Amantegi, Irati Jimenez y Garazi Kamio.*<br>*Funciones que debe desempeñar: evaluar todos los proyectos recibidos y nombrar una persona ganadora, antes del 15 de septiembre de 2021.*<br>*Si, en opinión de los miembros del tribunal, los trabajos presentados carecen de la calidad necesaria, podrán declarar la beca desierta.* |
| ***Bederatzigarrena. Proiektua saritzeko ekitaldia.*** | ***Novena. Acto de entrega de premios.*** |
| *Epaimahaiak irabazlea izendatu eta Beasaingo Udalari jakinarazi ondoren, Beasaingo* | *Una vez designada la persona ganadora por parte del tribunal, y una vez comunicada la decisión al Ayuntamiento de Beasain, el Ayuntamiento de Beasain organizará el acto de* |

| | |
|---|---|
| *Udalak Igartza Literatur beka emateko ekitaldia antolatuko du eta irabazleari gehienez ere urtebeteko epea emango dio idazlana amaituta entregatzeko. Entregatutako idazlanak epaimahaikoen oniritzia jaso beharko du. Bitarte horretan egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, epaimahaikoei jakinarazi beharko die aldaketaren berri eta haien onespena jaso beharko du.* | *entrega de la Beca Literaria Igartza y la persona ganadora contará con un plazo máximo de un año para entregar el trabajo terminado. El trabajo entregado deberá recibir la aprobación del tribunal. Si en este plazo la persona autora quisiera modificar el proyecto inicial, deberá comunicárselo a los miembros del tribunal y recibir su aprobación.* |
| ***Hamargarrena. Beka itzultzea.*** | ***Décima. Devolución de la beca.*** |
| *Idazleak bere lana entregatuko ez balu, edo idazlan horren izaera eta kalitatea, epaimahaikoen iritziz, proiektuan azaldutakoen aldean nabarmen kaxkarragoak balira, idazleak itzuli egin beharko du jasotako dirua.* | *Si el escritor o escritora no entregase el trabajo, o si el carácter y la calidad del mismo fueran, a juicio del tribunal, de bastante peor calidad que lo presentado en el proyecto, deberá devolver la cantidad recibida.* |
| ***Hamaikagarrena. Datuen babesa.*** | ***Undécima. Protección de datos.*** |
| *Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren araberakoa izango da.* | *El tratamiento de datos de las personas solicitantes se realizará cumpliendo lo establecido en Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre.* |
| ***Hamabigarrena. Aplikatuko den araudia.*** | ***Duodécima. Normativa de aplicación.*** |
| *Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.* | *Para todo aquello que no esté previsto en esta convocatoria, será de aplicación la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.* |
| ***Hamahirugarrena. Ebazpena eta helegiteak.*** | ***Decimotercera. Resolución y recursos.*** |
| *Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.* | *Esta convocatoria tiene carácter administrativo, por lo que el Ayuntamiento tiene la potestad para su interpretación y la resolución de cualquier diferencia que pudiera surgir de su aplicación o resolución.* |
| *Oinarri hauen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi-gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan. Hala nahi izanez gero, bide Administrazioaren aurkako auzi-bideari ekin aurretik, birjarpen-helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunean hasita zenbatutako hilabeteko epean.* | *Cabe interponer recurso administrativo frente a estas bases ante el Juzgado de lo contencioso administrativo de Gipuzkoa, en un plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación de las mismas en el BOG. Previamente con carácter potestativo, se podrá interponer recurso de reposición ante el órgano que dictó la resolución, en un plazo de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de las mismas en el BOG.* |

| | |
|---|---|
| I. ***ERANSKINA Parte hartzeko eskaria***<br><br>*Jaun/ Andrea:*<br><br>*NA:*<br><br>*Helbidea:*<br><br>*Posta elektronikoa:*<br><br>*Telefonoa:*<br><br>*Beasaingo Udalak CAF eta Elkar argitaletxearen laguntzarekin antolatu duen **IGARTZA LITERATURA SORKUNTZAKO BEKA**ren deialdira aurkezten dut neure burua, horretarako, deialdiaren oinarriak eskatzen duen dokumentazioa aurkeztuz.*<br><br>*Gizarte Segurantza eta zerga betebeharrak. Baimena ematen diot espresuki BEASAINGO UDALAri, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentutik eta Gizarte Segurantzatik eskura ditzan ORDAINDU BEHARREKO ZERGAK EGUNEAN IZATEAren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen agiriak.*<br><br>*Beasainen,2021eko, n, a.*<br><br>*Eskatzailearen sinadura:*<br><br>*Aurkezturiko dokumentazioa:*<br><br>a) *Kontakizunaren azalpena,*<br><br>b) *Lanaren lagina*<br><br>c) *Nortasun agiriaren kopia.”* | ***ANEXO Solicitud de participación***<br><br>*Señor / Señora:*<br><br>*DNI:*<br><br>*Dirección:*<br><br>*Email:*<br><br>*Teléfono:*<br><br>*Me presento a la convocatoria de la **BECA IGARTZA DE CREACIÓN LITERARIA** organizada por el Ayuntamiento de Beasain en colaboración con la CAF y la editorial Elkar, presentando la documentación exigida en las bases de la convocatoria.*<br>*Seguridad Social y obligaciones tributarias. Autorizo expresamente al Ayuntamiento de Beasain a obtener del Departamento de Hacienda y Finanzas y de la Seguridad Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la documentación acreditativa del cumplimiento de las condiciones DE ESTAR AL CORRIENTE DE SUS OBLIGACIONES TRIBUTARIAS.*<br><br>*En Beasain,a de de 2019.*<br><br>*Firma del/de la solicitante:*<br><br>*Documentación presentada:*<br><br>*a) Explicación de la narración*<br><br>*b) Muestra del trabajo*<br><br>*c) Copia del DNI* |
| b.- MENDEKOTASUNA EDO DESGAITASUNA DUTEN BEASAINGO UDALERRIKO PERTSONENTZAKO LAGUNTZAK, ESTIMULAZIO/ERREHABILITAZIO PROGRAMAK EGITEKO. OINARRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA. 2020BIBO0023 | b.- AYUDAS A PERSONAS CON DEPENDENCIA O DISCAPACIDAD DEL MUNICIPIO DE BEASAIN, PARA REALIZACIÓN DE PROGRAMAS DE ESTIMULACIÓN / REHABILITACIÓN. APROBACIÓN DE BASES Y CONVOCATORIA. |

| | |
|---|---|
| Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena: | Se ha informado la propuesta de la Comisión de Ciudadanía. |
| *AURRERAKINAK*<br><br>*1.- Gipuzkoako Foru Aldundia arreta goiztiarreko zerbitzua ematen ari da garapenean atzerapena edo zailtasunak dituzten adingabeentzat; 2012an 0 eta 3 urte bitarteko adingabeentzat zen zerbitzu hori. Familia askok estimulazio- edo errehabilitazio-zerbitzu pribatuekin jarraitzen dute, Aldundiak eskainitakoa amaitu ondoren, beren seme-alabek autonomia-maila handiagoa lor dezaten, eta hori gastu handia da familia-ekonomiarentzat.*<br><br>*2.- Gizarte Ongizateko Batzordeak, 2012-11-21ean egindako bileran, "Egoera Bereziak" izeneko kontu saila , 2. edo 3. mailako mendekotasuna duten eta Beasainen erroldatuta dauden 3 eta 18 urte bitarteko adingabeak estimulazio/errehabilitazio programak diruz laguntzeko izatea erabaki zuen ,familiak jasaten ari ziren gastua arintzeko.*<br><br>*3.- Gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen duen arreta goiztiarreko zerbitzuak 0 eta 6 urte bitarteko haurrak artatzen ditu.*<br><br>*Aldundiak eskainitako prestazioa osatzeko, Udalak estimulazio/errehabilitazio programak egiteko diru-laguntzak ematea erabaki du, eta, horretarako, honako oinarri arautzaile hauek prestatu ditu.*<br><br>*4.- 0220.480.231.01.01 kontusail espezifikoan 7.200 euroko kreditua kontsignatu da estimulazio/errehabilitazio programak laguntzeko.*<br><br>*LEGERIA APLIKAGARRIA*<br><br>*-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. Artikulua: Diru-sarreren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.*<br>*-Euskal Herriko 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.*<br>*-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.* | *ANTECEDENTES*<br><br>*1.-La Diputación Foral de Gipuzkoa viene prestando el servicio de atención temprana a menores que presentan retraso o dificultades en su desarrollo; el año 2012 dicho servicio iba destinado a menores entre los 0 y 3 años. Muchas familias continúan con servicios de estimulación o rehabilitación privados, una vez finalizado el ofrecido por la Diputación, con el fin de que sus hijos e hijas consigan un mayor nivel de autonomía, lo que supone un gasto importante para la economía familiar.*<br><br>*2.-La Comisión de Bienestar Social en reunión celebrada el 21-11-2012 acuerda destinar la partida presupuestaria denominada “Situaciones Especiales” a ayudas económicas para la realización de programas de estimulación/rehabilitación de menores de entre 3 y 18 años valorados como personas dependientes en grado 2 ó 3 y que estuvieran empadronadas en Beasain, al objeto de paliar el gasto que estaban soportando las familias.*<br><br>*3.- Actualmente el servicio de atención temprana que ofrece la Diputación Foral de Gipuzkoa atiende a la población infantil de 0 a 6 años.*<br>*Al objeto de completar la prestación ofrecida por la Diputación, el Ayuntamiento ha decidido otorgar ayudas económicas destinadas a la realización programas de estimulación/rehabilitación y para ello ha elaborado las siguientes bases reguladoras.*<br><br>*4.-En la partida específica 0220.480.231.01.01 se ha consignado un crédito de 7.200€ euros para ayudas a programas de estimulación/rehabilitación.*<br><br>*LEGISLACIÓN APLICABLE*<br><br>*-Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. Art. 17 Competencias propias de los municipios: Ordenación, programación y gestión en materia de garantía de ingresos e inclusión social.*<br>*-La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.*<br>*-Reglamento General de Subvenciones aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.* |

| | |
|---|---|
| *-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra.*<br>*-Diru-laguntzak arautzen dituen udal-araua.*<br>*-Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020-2022*<br><br>*PROPOSAMENA*<br><br>*Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:*<br><br>*<u>Lehenik</u>: Mendekotasuna edo desgaitasuna duten Beasaingo udalerriko pertsonentzako estimulazio / errehabilitazio programak egiteko laguntzak emateko oinarriak onartzea*<br>*<u>Bigarren</u>: Deialdia egitea, oinarriak argitaratuz.* | *-Ordenanza municipal reguladora de subvenciones.*<br>*-Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Beasain 2020-2022.*<br><br>*PROPUESTA*<br><br>*En consecuencia, la Comisión de Ciudadanía somete a la consideración del Pleno la siguiente propuesta:*<br><br>*<u>Primero</u>: Aprobar las Bases para la concesión de ayudas a personas con dependencia o discapacidad del municipio de Beasain, para realización de programas de estimulación / rehabilitación .*<br>*<u>Segundo:</u> Efectuar la correspondiente convocatoria mediante la publicación de las bases.* |
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira: | En el turno de intervenciones los asistentes formularon las siguientes: |
| Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros estamos a favor ya que entendemos que es una ayuda complementaria a la que da la Diputación Foral de Gipuzkoa y con ello se consigue llegar a aquellas personas a las que Diputación no llega.” | |
| Bozketa eginda, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira: | Tras realizar la votación se han aprobado las siguientes bases por unanimidad: |
| *“Mendekotasuna edo desgaitasuna duten Beasaingo udalerriko pertsonak estimulazio/errehabilitazio programak egiteko, laguntzak emateko oinarriak.*<br><br>*<u>1.- Xedea</u>*<br><br>*Oinarri hauen xedea Beasaingo udalerrian mendekotasuna edo desgaitasuna duten eta estimulazio- edo errehabilitazio-tratamendua behar duten pertsonen urteko gastuak arintzeko laguntzak arautzea da.*<br><br>*Laguntzak aurreko ekitaldiko errehabilitazio- edo estimulazio-tratamenduen ordainketari dagozkion zenbatekoen gainean aplikatuko dira.*<br><br>*Diru-laguntza horiek bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batek emandako diru-laguntzekin.* | *“Bases para la concesión de ayudas a personas con dependencia o discapacidad del municipio de Beasain, para realización de programas de estimulación / rehabilitación .*<br><br>*<u>1. Objeto</u>*<br><br>*Las presentes bases tiene por objeto regular las ayudas destinadas a paliar los gastos anuales de las personas del municipio de Beasain, con dependencia o discapacidad que precisen tratamiento de estimulación o rehabilitación.*<br><br>*La aplicación de las ayudas se realizará sobre los importes correspondientes al pago de los tratamientos de rehabilitación o estimulación del ejercicio inmediatamente anterior.*<br><br>*Estas subvenciones son compatibles con las subvenciones concedidas por otra institución pública o privada.* |

| | |
|---|---|
| *Beste laguntza batzuekin batera ematen bada, eskatzaileak ordaindu beharreko kopurua hartuko da gastutzat, jasotako zenbatekoa kendu ondoren.*<br>*Edonola ere, ezingo da inolako gain finantzaketarik eman.*<br>*<u>2. Aurrekontua</u>*<br>*1 0220.480.231.01.01 aurrekontuko kontu sailean 7.200 euroko kreditua esleitu da estimulazio- edo errehabilitazio programak laguntzeko.*<br>*Bideratutako kontu sailak eskari guztiei erantzuteko kreditu nahikorik ez badu, udalak handitu ahal izango du, baina hori eraginkorra izateko, kreditua eskuragarri dagoela adierazi beharko da, Diru-laguntzen Araudiko 58 art. ak adierazten duen modura.*<br><br>*<u>3. Onuradun izateko baldintzak.</u>*<br>*1.Onuradunak Beasaingo udalerrian eskaera egin baino gutxienez 6 hilabete lehenagotik erroldatuta egon behar du .*<br>*2. Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak errehabilitatzeko edo estimulatzeko programak ematen dituzten zentro edo instalazioetara joatea.*<br>*3. Mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonak 6 eta 25 urte bitartean izatea.*<br>*4. 2-3 graduko mendetasuna duen pertsona gisa baloratua edo % 65eko desgaitasuna edo handiagoa duen pertsona gisa baloratuta egotea.*<br>*5. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluaren 2. eta 3. paragrafoetan adierazitako diru-laguntzak lortzeko debeku-kausetako batean ere ez egotea.*<br><br>*<u>4. Diru-laguntzak zehazteko irizpideak eta horien zenbatekoa</u>*<br>*1.Estimulazio-/errehabilitazio- tratamenduaren urteko gastuaren % 100a jasoko dute familia-unitateek, baldin eta urteko diru-sarrerak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko diru-sarreren mugan sartzen badira. Gehieneko zenbatekoa 1.700 €.*<br>*2. Estimulazio-/errehabilitazio-tratamenduaren urteko gastuaren % 80 jasoko dute, urteko diru-* | *En el caso de concurrencia con otras ayudas, se considerará gasto la cantidad a abonar por la persona solicitante, una vez deducida la cantidad percibida.*<br>*De todas las maneras, no podrá darse ningún tipo de sobrefinanciación.*<br>*<u>2. Presupuesto</u>*<br>*En la partida presupuestaria 1 0220.480.231.01.01 se ha consignado un crédito de 7.200€ para ayuda a programas de estimulación o rehabilitación.*<br>*En el supuesto de que la partida destinada no disponga de crédito suficiente para atender todas las demandas, el ayuntamiento podrá ampliar el mismo, pero su efectividad queda condicionada a la declaración de disponibilidad de crédito de la manera señalada en el art. 58 del Reglamento de Subvenciones.*<br>*<u>3. Requisitos para ser personas beneficiarias.</u>*<br>*1. La persona beneficiaria tiene que estar empadronada en el municipio de Beasain con al menos 6 meses de antelación a la fecha de presentación de la solicitud.*<br>*2. Asistir a centros o instalaciones en las que se impartan programas de rehabilitación o estimulación a personas con dependencia o discapacidad.*<br>*3. La persona con dependencia o discapacidad debe tener edad comprendida entre los 6 y 25 años .*<br>*4. Estar valorada como persona dependiente en grado 2-3 o como persona con discapacidad en grado igual o superior al 65%*<br>*5. No estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.*<br>*<u>4. Criterios para la determinación de las subvenciones e importe de las mismas</u>*<br>*1. El 100 % del gasto anual del tratamiento de estimulación /rehabilitación, para unidades familiares cuyos ingresos anuales se incluyan en el límite de ingresos del baremo de las Ayudas de Emergencia Social. Importe máximo 1.700€.*<br><br>*2.El 80 % del gasto anual del tratamiento de estimulación /rehabilitación, para unidades* |

| | |
|---|---|
| *sarrerak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreren muga gainditzen duten edo beren egoera ekonomikoa baloratzea nahi ez duten familia-unitateek. Gehieneko zenbatekoa: 1.000 €.*<br><br>*3.Mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonaren gurasoak eta anai-arrebak hartuko dira familia-unitatetzat. Pertsona independizatua badago, familia-unitatea hark eta, hala badagokio, haren bikotekideak eta seme-alabek osatuko dute.*<br>*4.Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreren muga, unitate familiarraren neurriaren arabera:*<br>*- 1 pertsona: 13.427,11 €*<br>*- 2 pertsona: 17.241,49€*<br>*- 3 edo gehiago: 19.072,50€*<br>*<u>5. Diru-sarreren zenbaketa.</u>*<br>*Eskaeraren aurreko ekitaldian familia-unitateak jasotako urteko diru-sarrerak kontuan hartuko dira.*<br><br>*Hartuko dira kontuan:*<br>*A) Lanaren, pentsioen, prestazioen eta/edo laguntzen ondorioz lortutako urteko diru-sarrera garbiak.*<br>*B) Kapital higigarriaren etekinak.*<br><br>*<u>6. Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak</u>*<br>*Eskaerak, aldez aurretik hitzordua eskatuta, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizateko azpi arloan aurkeztuko dira 8:30etatik 13:30era, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bideetako batean.*<br><br>*Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da:*<br>*a) Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.*<br>*b) Eskatzailearen eta familia-unitatea osatzen dutenen NANaren fotokopia.*<br>*c) Familia-liburuaren fotokopia.*<br>*d) Gipuzkoako Foru Aldundiaren desgaitasun-ziurtagiria edo mendekotasun-ziurtagiria (udalari* | *familiares cuyos ingresos anuales superen el límite de ingresos anuales del baremo de las Ayudas de Emergencia Social o no deseen que se valore su situación económica. Importe máximo 1000€.*<br><br>*3.Se entenderá por unidad familiar a los padres y hermanos de la persona con dependencia o discapacidad. En el caso de que la persona esté independizada, la unidad familiar estará compuesta por ésta y, en su caso, su pareja e hijos.*<br>*4. Límite de ingresos anuales de las Ayudas de Emergencia Social según tamaño de la unidad familiar:*<br>*- 1 persona: 13.427,11 €*<br>*- 2 personas: 17.241,49€*<br>*- 3 o más personas: 19.072,50€*<br>*<u>5. Cómputo de ingresos.</u>*<br>*Se computarán los ingresos anuales percibidos por la unidad familiar durante el ejercicio inmediatamente anterior a la solicitud.*<br><br>*Se tendrán en cuenta:*<br>*A) Los ingresos netos anuales obtenidos por: rendimientos de trabajo, pensiones, prestaciones y/o ayudas.*<br>*B) Los rendimientos de capital mobiliario.*<br>*<u>6. Solicitudes y documentación a presentar</u>*<br>*Las solicitudes, previa cita, se presentarán en el Subárea de Bienestar Social del Ayuntamiento de Beasain, de 8:30 a 13:30 o en cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 del 1 de octubre de 2015, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.*<br><br>*La documentación a presentar será la siguiente:*<br>*a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.*<br>*b) Fotocopia del D.N.I. de la persona solicitante y de las que constituyan la unidad familiar.*<br>*c) Fotocopia del libro de familia.*<br>*d) Certificado de discapacidad o dependencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa (en el caso de* |

| | |
|---|---|
| *ziurtagiria lortzeko baimena ematen bazaio, ez da aurkeztu beharko).*<br>*e) Eskaeraren aurreko urtean egindako tratamenduaren urteko gastuaren egiaztagiria.*<br>*f) Kontu-zenbakia 20 digituekin.*<br>*Eskatzaileak bere familia-unitatearen egoera ekonomikoa baloratzea nahi badu, honako hauek ere aurkeztu beharko ditu:*<br>*g) Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate azpi arloari berariazko baimena ematen dion agiria, behar diren datuak sektore publikoko edozein erakunderengandik zuzenean jaso ditzan, laguntza hauek lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.*<br>*h) Jasotako diru-sarrera garbien agiria (10-T, nominak, pentsioak, etab.).*<br>*i)LANBIDEk, Estatuko Enplegu Zerbitzuak eta/edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako ziurtagiria, kasua bada, jasotako urteko prestazioei buruzkoa edota prestaziorik jasotzen ez denarena, 16 urtetik gorako pertsonena.*<br>*Jasotako laguntzak Gipuzkoako Foru Aldunditik edota Beasaingo Udaletik badatoz, udalak berak jasoko du informazioa.*<br>*Udalak egiaztatzen badu eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo nahikoa ez dela, 10 egun naturaleko epea emango dio eskatzaileari ez-betetzea edo akatsa zuzentzeko; epe horretan zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe.*<br><br>*7. Eskaera egiteko epea.*<br><br>*Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskaerak aurkezteko epea kontatzen hasiko da, eta 2021-03-19an amaituko da.*<br><br>*Ezarritako epetik kanpo egindako eskaera guztiak ukatuko dira.*<br><br>*8. Azterketa eta ebazpena* | *que se autorice al ayuntamiento su obtención, no será necesario aportarlo).*<br>*e) Justificante de gasto anual del tratamiento realizado el año inmediatamente anterior a la solicitud.*<br>*f) Número de cuenta con 20 dígitos.*<br>*Si la persona solicitante desea que se valore la situación económica de su unidad familiar, se deberá presentar además:*<br>*g) Documento en el que se autoriza expresamente al subárea de Bienestar Social del Ayuntamiento de Beasain para recabar directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las condiciones requeridas para la obtención de estas ayudas.*<br>*h) Justificante de los ingresos netos percibidos (10-T, Nóminas, Pensiones, etc).*<br>*i) Certificado emitido por LANBIDE, Servicio Estatal de Empleo y/o Instituto Nacional de la Seguridad Social de las prestaciones anuales percibidas, cuando se diera el caso, o de no percibir prestación, de las personas mayores de 16 años.*<br>*En el caso de que las ayudas recibidas provengan de la Diputación Foral de Gipuzkoa y/o Ayuntamiento de Beasain, será el propio ayuntamiento quien recabe la información.*<br>*Si el Ayuntamiento comprobara que la documentación presentada por la persona solicitante fuese incompleta o insuficiente concederá a la misma un plazo de 10 días naturales para subsanar la omisión o deficiencia, transcurrido el cual sin haber procedido a la subsanación, la solicitud se archivará sin más trámite.*<br><br>*7. Plazo de solicitud.*<br>*Las bases se remitirán a la BDNS y a partir del del día siguiente al de la publicación en el*<br>*BOG empezará a contar el plazo para presentar las solicitudes que finalizará el 19-03-2021*<br><br>*Toda solicitud formulada fuera del plazo establecido será denegada.*<br><br>*8. Valoración y resolución.* |

| | |
|---|---|
| *Udaleko Gizarte Ongizate azpi arloak laguntza-eskaeren espedienteak aztertuko ditu eta Alkatetzak ebatziko ditu. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hurrengo 2 hilabeteetan, pertsona interesatuei hartutako erabakiaren berri jakinarazi egingo zaie.*<br><br>*<u>9. Udal zorraren konpentsazioa</u>*<br><br>*Laguntzaren onuraduna Udal Ogasunekiko zordun denean eta zorra mugaeguna igarotako zor garbi eskagarria denean, Udalak konpentsatu egingo du zor zaiona.*<br><br>*<u>10. Arau-hausteak</u>*<br><br>*Datuak ezkutatzeak edota oinarri hauetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta pertsona onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.”* | *Será la subárea de Bienestar Social del Ayuntamiento quien valore los expedientes de solicitud de ayudas y Alcaldía quien resuelva. Se notificará a las personas interesadas la resolución que se adopte en el plazo máximo de 2 meses una vez finalizado el período de presentación de solicitudes.*<br><br>*<u>9. Compensación de deuda municipal</u>*<br><br>*Cuando la persona beneficiaria de la ayuda sea deudora de la Hacienda Municipal con motivo de una deuda vencida, líquida y exigible, el Ayuntamiento procederá a la compensación de la misma.*<br><br>*<u>10. Infracciones</u>*<br><br>*Las infracciones por ocultar datos o fraude en las condiciones que dan derecho a las ayudas municipales establecidas en las presentes bases, darán lugar a la revocación de la ayuda concedida y a la devolución de los importes correspondientes por parte de las personas beneficiarias.* |
| **<u>4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK</u>**.<br><br>a.- <u>ZERBITZUAK KONTRATATZEA. BEASAINGO UDALERRIAN ANTOLATUTAKO EKITALDIETARAKO ESZENATOKIAK ETA KARPAK, AULKIAK,, MAHAI TOLESGARRIAK ETA TARIMAK ALOKATZEKO MUNTATZEKO ETA DESMUNTATZEKO ZERBITZUA ETA UDAL JABETZAKO ANTZEKO BESTE ELEMENTU BATZUK (MANTENTZE LANAK BARNE).</u> 2020ZEBO0086<br><br>Lurralde Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da: | **<u>4.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE TERRITORIO</u>.**<br><br>a.- <u>CONTRATACIÓN DE SERVICIOS: ALQUILER DE ESCENARIOS Y CARPAS, SILLAS, MESAS PLEGABLES Y TARIMAS, SU MONTAJE Y DESMONTAJE Y DE OTROS ELEMENTOS SIMILARES DE PROPIEDAD MUNICIPAL (INCLUIDO MANTENIMIENTO), PARA EVENTOS ORGANIZADOS EN EL MUNICIPIO DE BEASAIN.</u><br><br>A propuesta de la Comisión de Territorio, se adopta por unanimidad el siguiente acuerdo: |
